

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafar Lansarek Lekunberrin egindako pintura bereziei buruzko ikastaro baten ondorioz hiru kontratazio egin dira

*Bederatzi langabek burutu dute prestakuntza, Simogaberri enpresarekin garatutakoa "proiektu berezien" barruan*

Asteartea, 2017.eko ekainak 6

Bederatzi langabek amaitu dute Eskubide Sozialetako Departamentuaren mendeko Nafar Lansarek Lekunberriko Simogaberri enpresarekin lankidetzan antolatutako "Pieza metalikoen azaleko tratamendua eta pintura" ikastaroa. Enpresa Mekatar Groupen barruan dago eta azaleko tratamenduak egiten ditu pieza metalikoetan. Prestakuntza egin duten hiru ikasle kontratatu ditu.



Ikastarako parte-hartzaileak.

Prestakuntza-ekintza hau Nafar Lansareren "[Proiektu berezien](#)" lan-ildoaren baitan hartzen da. Horrela, erakunde autonomoak beste erakunde eskatzaile batzuekin lankidetzan prestatzen ditu ikastaroak. Ekimen hau 2016. urtean hasi zen, Nafarroako sektore edo eskualde oso berezien produkzio-prozesuetan zeuden prestakuntza-eskaerei erantzuteko, kontratazio berriak egin aurretik.

2016. urtean 190 ikasleri eman zieten prestakuntza. Eta 2017. urtean 360 pertsona inguru prestatzen ari dira [automobilgintza-industriarako oinarritzko jardueretako ikastaroan](#). Manufaktura-industrietako langilearen lanpostuan interesa duten pertsonak modu integralean prestatzeko antolatu dute. Lehenengoa da Nafarroan aldi baterako kontratuetan eta laugarrena mugagabeetan.

Simogaberri enpresako ikastaroa ordukoa da eta izena eman duten hamar pertsonetarik bederatzik burutu dute (besteak enplegua aurkitu zuen), bi txandatan. Ikasleak pieza metalikoak margotzeko prestatu dituzte. Horrela, pintura berezien teoria, lanaren prestakuntza eta nola ematen den ikasi dituzte.

Prestakuntza 4 ordutan eman da, egunero, bi lan-astetan. Guztira, 10 eguneko teoria eta praktika izan dira Simogaberriko enpresan, eta horri esker, ikasleak lan-munduan murgiltzeaz gain, lineako ekoizpenari eta faseen arteko kontrolen garrantziari buruz ikasi dute. Era berean, kalitateari buruzko prestakuntza ere eman da ikastaroan.